2027ko INAUTERIAK IRAGARTZEKO KARTELA AUKERATZEKO LEHIAKETAREN OINARRI ARAUAK

1.- 16 urtetik gorako pertsona orok parte har dezake lehiaketa honetan.

2.- Jatorrizko lanek 32cm-ko zabalera x 48cm-ko altuera izango dute; ezinbestekoa da formatu digitalean aurkeztea. Eta aukerakoa, paperean edo/eta kartoi-lumazko euskarrian, kolore orotan eta edozein modalitate artistikotan.

Lana formatu digitalean 300 ppp*ko erresoluzioan eta CMYK erako koloretan aurkeztu behar da.

3.- Kartelak "HERNANIKO INAUTERIAK 2027" goiburua eraman behar du.

4.- Lehiakideak aurkeztu dituzten obren erantzule izango dira jabetza intelektualaren ondorioetarako, baita aurkez litekeen edozein erreklamazioren aurrean ere, irudi eskubidea barne. Ez da onartuko elkarrizketa-laguntzaile edo adimen artifizial sortzaile bidez egindako lanik.

5.- Egiletzaren inguruko adierazpen arduratsua sinatuko du. I. Eranskina.

6.- Egiaztapen-klausula. Antolakuntzak aukera izango du seinale koherenteak agertuz gero, parte-hartzaileari zirriborroak, aldaketen historia edo sortze-prozesuaren beste froga batzuk eskatzea. Eskatutako frogarik ez aurkeztea, berez, ez da bazterketarako arrazoi, baina gainerako zantzuekin batera baloratuko da.

7.- Idatzizko eta irudi bidezko komunikazioan, hizkuntza eta irudien erabilera ez-sexista bermatuko da. Bereziki pertsonen irudiak erabiltzekotan, emakumeen eta gizonen presentzia modu orekatuan eta ez-estereotipatuan islatuko dira. Udaleko web orrian eskuragarri dago jarraitu beharreko gida: *"Komunikazio berdinzalerako jarraibideen gida: Ahozko, idatzizko eta irudi bidezko komunikazioa Hernaniko Udalean"*.

8.- Lanak aurkezteko epea 2026ko abenduaren 2an amaituko da eguerdiko 14:00etan. Jatorrizko lanak Biteri kultur etxean zein emailez aurkeztuko dira. Emailez kultura@hernani.eus helbidera bidali beharko dira, eta lanarekin batera, egilearen izena, helbidea eta telefonoa igorriko dira. Biteri kultur etxean, datu pertsonalak aparteko gutunazal batean aurkeztuko dira.

Bai online bai aurrez aurre aurkeztutako lanetan, lanak jaso izanaren ziurtagiria edo mezua jasoko dute egileek. Beraz, erantzunik jasotzen ez bada, lanak behar bezala iritsi ez direla adieraziko du.

9.- Kartel sariduna 2026ko abenduaren 22an iragarriko da. Inauterietako Jai Batzordeak lehen lau kartelak aukeratuko ditu, eta ondoren, herritarrek bozka emateko aukera izango dute, presentzialki eta online. Pertsona bakoitzak bozka bat emateko aukera izango du. Bozka errepikatuak ez dira kontuan hartuko.

Bozka gehien jasotzen dituen kartela proposatuko da Inauteriak iragartzeko kartela izan dadin.

10.- Jai Batzordeak lehiaketa hutsik uztea erabaki dezake, eta ondorioz, kartela egiteko beste bide batzuk landu.

11.- Sari bakarra 700 eurokoa izango da. 350 euro Hernaniko Berriak elkarteko dendetan erabili beharko dira eta gainerako 350 euroak transferentzia bidez jasoko ditu irabazleak.

12.- Obraren jabetza egilearena da eta Hernaniko Udalak izango du saritutako lana 2026ko inauterietan erabiltzeko aukera. Udalak irudia beste zerbaitetarako erabili nahiko balu, egilearen baimenarekin egingo du.

13.- Egileak presentzialki aurkeztutako lana jaso nahi badu 2026ko urtarrilaren 20a baino lehen egin beharko du.

14.- Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek guztiak onartzea dakar.

15.- Hauek dira kontuan izan beharreko datak, beraz:

- **Azaroak 13- abenduak 2, 14:00ak bitarte**. Proposamenak jaso. Ondoren, Inauterietako Jai Batzordeak 4 kartel aukeratuko ditu.
- **Abenduak 10– 21, goizeko 9ak bitarte**. Herritarren bozka jasotzeko epea: online kultura.hernani.eus webgunean eta Biteri kultur etxean.
- **Abenduak 22**. Kartel sariduna iragarriko da.

Hernanin, 2026eko azaroaren 12an

Hernaniko Udala

EGILETZAREN ADIERAZPEN ARDURATSUA
I. ERANSKINA

Izen-abizenak	**NA**

Nire ardurapean adierazten dut:

> «Lehiaketara aurkeztutako lana nik neuk osorik sortua dela, eta ez dudala adimen artifizial sortzaileko tresnarik (hala nola ChatGPT, Gemini, Claude edo antzeko beste batzuk) erabili irudia bere osotasunean edo zatiak sortzeko. Jakina dut antolakuntzak sorkuntza-prozesuaren inguruko froga osagarriak eskatu ahal dituela, eta adierazpen faltsu batek lana baztertzea eta saria itzularaztea ekar dezakeela.»

Horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izateko egin dut aitorpen hau.

Hernanin _____ Sinadura _____

I. ERANSKINA – DATUEN BABESERAKO INFORMAZIO OSAGARRIA

Tratamenduaren arduraduna
Nortasuna: Hernaniko Udala – IFZ: P2004300F
Helbidea: Gudarien plaza 1, 20120 Hernani, Gipuzkoa
Telefonoa: 943 337 000
Datuak babesteko Ordezkaritza (DBO): dbd@hernani.eus

Helburua
Aurkeztutako eskaera izapidetzea eta kudeatzea, dagokion udal departamentuaren bitartez

Datuak gordetzeko epea

Bildu zireneko helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran gordeko dira. Udalean aplika daitekeen artxibo eta dokumentazio araudian xedatutakoari jarraituko zaio.

Legitimazioa
Emandako datuak tratatzeko lege-oinarria, bai formularioan bai erantsi daitekeen dokumentazioan, DBEOren 6.1.e) artikulua izango da: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako eginkizun bat betetzeko:
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

Eskatutako datuak beharrezkoak dira eskabidea behar bezala izapidetzeko.

Hartzaileak

Ez dago aurreikusita datuak hirugarrenei komunikatzea, ez eta datuen nazioarteko transferentziarik egitea ere, legeak hala agintzen ez badu.

Eskubideak

Eragindako pertsonek eskubide hauek dituzte:
Udala beren datuak tratatzen ari den ala ez dioen baieztapena jasotzekoa.
Beren datu pertsonaletara irispidea izateko oker daudenak zuzentzeko eskatzekoa eta, hala badagokio, ezabatzeko eskatzekoa, datuak dagoeneko ez badira beharrezkoak bildu ziren helbururako, besteak beste.
Inguruabar jakin batzuetan:

-Beren datuen tratamendua mugatzeko eskatzekoa; kasu horretan udalak erreklamazioak egiteko edo erreklamazioetatik defendatzeko bakarrik erabiliko ditu.
-Beren datuen tratamenduaren aurka agertzekoa. Kasu horretan Udalak datuak tratatzeari utziko dio, salbu eta premiazko arrazoi legitimoak baldin badaude edo balizko erreklamaziorik egin edo haietatik defendatu behar bada, erabaki indibidual automatizatuen tratamendua ere sartzen dela.

-Datuen eramangarritasuna eskatzekoa, berak jaso ahal izateko edo beste arduradun bati helarazteko, erabilera arrunteko eta irakurketa mekanikoko formatu egituratu batean.

Eskubideak Hernaniko Udalean gauzatu ahal izango dira. Helbidea: Gudarien plaza, 1, 20120 Hernani, Gipuzkoa. Gaian hau adierazi beharko da: Erref. Datuen babesa.

Zure eskubideak baliatzean behar bezala artatu ez bazaituzte, erreklamazioa aurkez dezakezu Datuak Babesteko Euskal Autoritatean. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71-3. solairua, 01008 Gasteiz.

Nolanahi ere, lehenik erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Udalaren Ordezkaritzan dbd@hernani.eus

Info gehiago: https://www.hernani.eus/eu/datubabestuak